

## BIZIKLETEN KONPONKETA

### Jarduera

Bizikletak mantentzeko eta konpontzeko oinarrizko ezagutzak.

### Deskribapena

Aisialdia, kirola eta hirietako garraio jasangarria batzen dira bizikletan. Kirola lasaia eta CO2 zero emisioak lortzen dira bizikletari esker. Ikastaro honetan bizikleta mota ezberdinak, mistoak, lasterketakoak, mendikoak, paseokoak... ezagutuko dira eta baita ere bizikletaren zatiak eta erreparatzeko oinarrizko teknikak modu praktikoan. Ikaslegoak bere txirrina eramaterik izango du ikasitako praktikan jartzeko.

### Helburuak

- Bizikleta egoera egokian mantentzen ikastea.
- Oinarrizko konponketak burutzeko gaitasunak lantzea.
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

### Programa

#### Lauhilekoa.

- Bizikletaren atal ezberdinak bereizten ikasi eta beraien funtzionamendua ulertu.
- Bizikletaren mantenurako beharrezkoak diren tresnak ezagutu eta erabiltzen ikasi.
- Bizikleta egoera egokian egon dadin egin behar diren kontrol lanak burutzen ikasi.
- Bizikleta mota ezberdinak ezagutu bai erabilpenaren arabera zein gamaren arabera.
- Oinarrizko erregulazioak burutu:
  - Kubiarta zein kamera aldatu.
  - Frenoak erregulatu.
  - Kanbioak erregulatu.
  - Frenoak zein bere atalak aldatu.
  - Frenoen zein kanbioen kableak eta fundak aldatu.
  - Bizikletaren edozein atal aldatu.
- Bizikletan posizio egoki bat aukeratzeko kontuan hartu beharreko gauzak ikasi.

## Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

## Nori zuzendua

Helduak

## Ikasleak eraman beharreko materiala

Oinarritzko tresnak zentroak jarriko ditu baina ikasle bakoitzak bere proiektua burutzeko behar duen berariazko materiala eramango du.